# OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2015IPLE0006
**Eguna:** 2015/04/30
**Ordua:** 19:00 – 20:15
**Tokia:** Areto nagusia

**Bertaratuak**

| | |
|---|---|
| - Andoni Gartzia Arruabarrena | EHBILDU |
| - Maite Olatziregi Esparza | EHBILDU |
| - Agin Rezola Laburu | EHBILDU |
| - Ione Olatziregi Mendiorotz | EHBILDU |
| - Berta Arozena Bergara | EHBILDU |
| - Isabel Otero Glorie (5. puntuan sartu da) | EHBILDU |
| - Raul Redín Hernández | EHBILDU |
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ-PNV |
| - Bixente Arrizabalaga Bengoetxea (4. puntuan sartu da) | Hamaikabat |

**Bertaratu ez direnak**

| | |
|---|---|
| - Ramón Aranzasti Loyarte | EAJ-PNV |
| - Imanol Lizarralde Marín | Hamaikabat |

**Idazkaria**

- Xabin Olaizola Lasa

**Aztergaiak**

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **2015eko martxoaren 26 eta apirilaren 24ko akten onarpena** | 1 | Aprobación de las actas de 26 de marzo y 24 de abril de 2015. |
| **Txoritokietako Haitz-Lepoa harrobian betelana egiteko hitzarmena.** | 2 | Convenio urbanístico para recuperación del coto minero Haitz-Lepoa en Txoritokieta. |
| **Astigarragako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren aldaketa zehatza, HEA 12 “Anibar-Mendiaundi” eta HEA 13 “Bidebitarte”.** | 3 | Modificación puntual del Plan General de Ordenación urbana de Astigarraga, relativa a “Anibar-Mendiaundi (AIU 12) y Bidebitarte (AIU 13)”. |

| | | |
|---|---|---|
| **Grupo Araimen Bat, S.L. "Ubarburu" HEA 19ko 35. parcelaren Xehetasun Azterlanari aurkeztutako alegazioak erantzun eta behin betirako onartzeko proposamena.** | 4 | Grupo Araimen Bat, S.L. Estudio Detalle del AIU 19 "Ubarburu" parcela 35. Contestación de alegaciones y propuesta para aprobación definitiva. |
| **Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmena: Zarkumendegiko bidegorria gauzatzea.** | 5 | Convenio con la Diputación Foral de Gipuzkoa: realización de la vía ciclista-peatonal de Zarkumendegi. |
| **2015-1 kreditu gehigarria. Hasierako onarpena.** | 6 | Crédito adicional 2015-1. Aprobación inicial |
| **Aterpetxe natur-eskolako baldintza pleguaren onarpena.** | 7 | Aprobación del pliego de condiciones del Albergue escuela-medio ambiental. |
| **Emergentzizko pisuaren arautegia** | 8 | Reglamento del piso de emergencia |
| **Astigarragako kiroldegiko aldagelak eraberritzea. Esleipenaren proposamena.** | 9 | Reforma de vestuarios del Polideportivo de Astigarraga. Propuesta de adjudicación. |
| **Mozioa: Lau-Haizeta parkearen ingurukoa** | 10 | Moción: Parque Lau-Haizeta |
| **Informazio, galdera eta eskariak** | 11 | Información, ruegos y preguntas |

## Esan-eginak eta erabakiak

Aho batez onartutako presako deklarazioaren ondoren, Ergobiako bizilagun batzuei Plan Berezia tramitatzeagatik ordaindu beharreko tasaren hobaria gai-zerrendan sartzea erabaki da.

Previa declaración de urgencia aprobada, por unanimidad, se acuerda incluir en el orden del día la propuesta de bonificación de la tasa por tramitar el Plan Especial a un bloque de vecinos de Ergobia.

1. **<u>2015eko martxoaren 26 eta apirilaren 24ko akten onarpena</u>**

EAJko Zorione zinegotziaren abstentzioarekin – osoko bilkura horretan ez baitzen izan –, eta EHBilduren 6 zinegotzien aldeko botoekin, martxoaren 26ko akta onartzen da.

Apirilaren 24ko akta, aho batez, onartzen da.

1. **<u>Aprobación de las actas de 26 de marzo y 24 de abril de 2015</u>**

Con la abstención de la concejala Zorione de EAJ/PNV que no estuvo en la sesión y el voto favorable de los 6 concejales de EHBildu, se aprueba el acta del 26 de marzo.

La acta del 24 de abril es aprobada por unanimidad.

**2. Txoritokietako Haitz-Lepoa harrobian betelana egiteko hitzarmena**

Hirigintza batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

1.- Udal arkitektoak aurkeztutako alegazioaren edukiera teknikoa duten alderdiak onartzea, hitzarmenaren textuari gehituz betelana nola egingo den argituz eta zehaztuz.

2.- Udal arkitektoak aurkeztutako alegazioan zesio automatikoari buruzko edukiera legalki ezinezkoa delako eta bermearen kantitatea handitzeari buruzkoak ez onartzea.

3.- Edukiera teknikoa duten alderdiak dokumentuari erantsita, hau onartzea eta Alkatea ahalmentzea hitzarmena sinatzeko.

Irizpena bozkatu ondoren, aho batez, onartu egin da.

**2. Convenio urbanístico para recuperación del coto minero Haitz-Lepoa en Txoritokieta**

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de urbanismo, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

1.- Estimar la alegación formulada por el arquitecto municipal en cuanto a los aspectos de contenido técnico se refiere, añadiendo al documento aclaraciones y/o determinaciones ligadas con la forma de ejecutar el relleno.

2.- Desestimar las alegaciones planteadas respecto a la cesión automática de la propiedad por imposibilidad legal y en relación al incremento del aval.

3.- Aprobar el documento con la incorporación de los aspectos de contenido técnico alegados y facultar al Alcalde a la firma del mismo.

Sometido a votación el dictamen es aprobada por unanimidad.

**3. Astigarragako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren aldaketa zehatza, HEA 12 “Anibar-Mendiaundi” eta HEA 13 “Bidebitarte”**

Hirigintza batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

*Lehena*.- 2015eko apirilean aldatutako Astigarragako Hirigintza Antolamendurako Plan Nagusiaren

**3. Modificación puntual del Plan General de Ordenación urbana de Astigarraga, relativa a “Anibar-Mendiaundi (AIU 12) y Bidebitarte (AIU 13)”**

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de urbanismo, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

*Primero.-* Aprobar el Documento modificado del expediente de

Hirigintza Jarduerarako 12. Eremuaren ("*Mendiaundi-Anibar*") eta Hirigintza Jarduerarako 13. Eremuaren (*"Bidebitarte"*) aldaketa-espedientea dokumentua onartzea.

*Bigarrena.-* 2015eko apirilean aldatutako Astigarragako Hirigintza Antolamendurako Plan Nagusiaren Hirigintza Jarduerarako 12. Eremuaren ("*Mendiaundi-Anibar*") eta Hirigintza Jarduerarako 13. Eremuaren (*"Bidebitarte"*) aldaketa-espedientearen dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, Diputatu Kontseiluaren behin betiko onarpena jaso dezan.

Zorione zinegotziak hitza hartzen du, Hirigintza batzordean gai hau aztertzeko garaian Bixente Arrizabalagak zinegotziak bilera utzi zuela adierazteko, eta Alkateak alderdi hori batzordeko aktan jaso dela argitzen dio.

Irizpena bozkatu ondoren, <u>aho batez</u>, <u>onartu</u> egin da.

modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Astigarraga para la A.I.U 12 "*Mendiaundi-Anibar*" y para la A.I.U 13 *"Bidebitarte"* de fecha abril de 2015.

*Segundo.-* Remitir a la Diputación Foral de Gipuzkoa el Documento modificado del expediente de Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Astigarraga para la AIU 12 "Mendiaundi-Anibar" y para la AIU 13 "Bidebitarte", de abril de 2015, para su aprobación definitiva por el Consejo de Diputados.

Interviene la concejal Zorione para señalar que a la hora de tratar este tema en la comisión de Urbanismo, el concejal Bixente Arrizabalaga abandonó la sala, a lo que el Alcalde le aclara que dicho aspecto se recoge en el acta de la comisión.

Sometido a votación el dictamen es <u>aprobada por unanimidad</u>.

**4. <u>Grupo Araimen Bat, S.L. "Ubarburu" HEA 19ko 35. partzelaren Xehetasun Azterlanari aurkeztutako alegazioak erantzun eta behin betirako onartzeko proposamena</u>**

Hirigintza batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

Lehena.- Behin betiko onartzea Astigarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 19 "Ubarburu" Hirigintza Jarduerarako Eremuaren 35. lurzatiaren Xehapen Azterlana, baldin eta "*Grupo Araimen-Bat*" enpresak lurzatiaren ekialdean dagoen azalera lagatzen badu

**4. <u>Grupo Araimen Bat, S.L. Estudio Detalle del AIU 19 "Ubarburu" parcela 35. Contestación de alegaciones y propuesta para aprobación definitiva</u>**

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de urbanismo, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

Primero.- Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle de la parcela 35 A.I.U 19 "Ubarburu" del Plan General de Ordenación Urbana de Astigarraga, condicionado a que el *"Grupo Araimen-Bat"*, proceda a la cesión de la superficie

xehapen-azterlana behin betiko onartzen denetik zenbatzen hasita bi hilabeteko epean edo obretarako lizentzia eman aurretik.

situada al este de la parcela, en el plazo de dos meses desde la aprobación definitiva del estudio de detalle, o con anterioridad a la concesión de la licencia de obras.

Bigarrena.- Grupo Araimen Bat enpresak eta Felix Elarrek egindako alegazioak baiestea udal-arkitektoaren 2015eko apirilaren 21eko txosten teknikoaren arabera.

Segundo.- Estimar las alegaciones realizadas por Grupo Araimen Bat y por Felix Elarre en los términos del informe técnico del Arquitecto municipal de fecha 21 de abril de 2015.

Hirugarrena.- Erabaki honen berri ematea alegatzaileei, eta txosten teknikoa eranstea.

Tercero.- Notificar el presente acuerdo a los alegantes, adjuntándose el informe técnico.

Laugarrena.- Behin betiko onarpen-erabakia GAOn eta Gipuzkoan tirada handiena duen egunkarian argitaratzea.

Cuarto.- Publicar el acuerdo de aprobación definitiva en el BOG y en el periódico de mayor difusión de Gipuzkoa.

Bosgarrena.- Dokumentua Foru Aldundira igortzea, Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan gordailutzeko.

Quinto.- Remitir el documento a la Diputación Foral, para su depósito, en el Registro Administrativo de Planeamiento Urbanístico.

Irizpena bozkatu ondoren, aho batez, onartu egin da.

Sometido a votación el dictamen es aprobada por unanimidad.

**5. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmena: Zarkumendegiko bidegorria gauzatzea**

**5. Convenio con la Diputación Foral de Gipuzkoa: realización de la vía ciclista-peatonal de Zarkumendegi**

Alkateak bizikleta eta oinezkoentzako Astigarraga – Zarkumendegi bidegorria egin eta finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatu beharreko hitzarmenaren berri ematen du, hitzarmenaren nondik norakoak azalduz eta hitzarmena onartzeaz gain, alkateari sinatzeko ahalmena eman behar zaiola adieraziz.

El Alcalde presenta el convenio colaboración a firmar con la Diputación Foral de Gipuzkoa para financiar y ejecutar las obras del tramo de vía ciclista peatonal Astigarraga- Zarkumendegi, explicando los pormenores del convenio y señalando que además de aprobar el convenio se debe facultar al Alcalde a la firma del mismo

Zorione zinegotziak hartzen du hitza, bere alderdiak aurrekontuei alegazioa bat aurkeztu ziotela adierazteko, zehazki obra hauetarako kontu-sail bat zenbatekorik gabe edukitzeagatik. Eta aurrekontua

Toma la palabra la concejal Zorione y señala que su partido había presentado una alegación contra los presupuestos por contener una partida – para estas obras – sin asignar cantidad alguna, y

onartu eta hilabetera hitzarmen hau aurkezten dela.

Alkateak erantzuten dio, Foru Aldundiak obra finantzatzeko konpromisoa hartu zuela, baina hitzarmen proposamen hau aurkeztu arte, ez dela jakin finantziazioaren zenbatekoa.

Bidegorriaren zein zati egingo den Zorione zinegotziak egindako galderaren aurrean, alkateak erantzuten dio, bidegorri osoa egingo dela, obra 8 edo 9 hilabete iraungo duela, baldintza pleguak datorren udal osoko bilkuran onartu nahi direla, eta obra finantzatzeko kreditu gehigarria onartu behar dela, gai zerrendaren hurrengo puntuan aurkeztuko dena.

Bozkatu ondoren, aho batez onartzen da, hitzarmena eta alkateari sinatzeko ahalmena ematea.

Bixente Arrizabalaga zinegotziak hitza hartze du, alkateari gogorarazteko aurrekontuen alegazioetan, obra bi zatitan egiteko bere alderdiak aurkeztutako alegazioa ez zela onartu, eta alkateari galdetzen dio zein ikuspegitik prestatzen duen aurrekontua.

Alkateak udal taldearentzat bidegorria egitea proiektu estrategikoa dela erantzuten dio, eta aurrekontuak onartzeko prozeduran, hitzarmen honen berri eman zela adierazten du. Baina beraiek ez zeudela prest obra zatika egiteko, beraientzat zentzurik ez duelako eta ez delako segurua.

**6. 2015-1 kreditu gehigarria. Hasierako onarpena**

Alkateak kreditu gehigarriaren

que al mes de aprobarse el presupuesto se presenta este convenio.

El alcalde le contesta que la Diputación se había comprometido a financiar las obras, pero que hasta presentarse la propuesta de este convenio no se sabía la cantidad con que lo iba a financiar.

Zorione le pregunta que tramo de la obra se va a ejecutar, a lo que el Alcalde le responde que se va a ejecutar en su totalidad y que va a durar entre 8 ó 9 meses, que el pliego de condiciones de las obras se quieren presentar para el siguiente pleno, y que para financiar la obra hay que aprobar un crédito adicional, que se presenta en el siguiente punto del orden del día.

Sometida a votación se aprueba por unanimidad el convenio y facultar al alcalde para la firma del mismo.

Toma la palabra el concejal Bixente Arrizabalaga para recordar al alcalde que en las alegaciones al presupuesto, se desestimó la alegación de su partido para hacer las obras en dos fases, y le pregunta al alcalde haber con que perspectiva prepara el presupuesto.

El alcalde responde que la construcción del bidegorri es un proyecto estratégico para el equipo de gobierno, y que durante la tramitación de los presupuestos ya se comunicó sobre la existencia de este convenio, pero que ellos no estaban dispuestos a hacer las obras por tramos, porque les parecía que no tenía sentido y que no es seguro.

**6. Crédito adicional 2015-1. Aprobación inicial**

El alcalde presenta la propuesta de

proposamena aurkezten du **626.476€koa**, gehitu diren gastu kontu-sailak eta hauek finantzatzeko aurreikusitako era azalduz.

Zorione zinegotziak hitza hartzen du eta adierazi, udal taldeak aurreko udal taldeak onartutako HAPO beti kritikatzen duen arren, planeamendu figura horren hirigintza aprobetxamenduari esker finantziatu ditzakeela bere proiektuak.

Alkatea eta Zorione eta Bixente zinegotzien artean, udala sortu zenetik gaur egunera onartu diren plan orokorren inguruko eztabaida sortzen da, eta baita alderdi politiko desberdinak hauek idaztean eta hauen onarpenean izan zuten parte-hartzearen inguruan.

Jarraian, Bixente Arrizabalaga zinegotziak adierazten du aurrekontuei aurkeztutako zuzenketetan, ez zela kontuan hartu beraiek aurkeztutakoa, eta ikuspegi gutxikoa iruditzen zaiola otsailean aurrekontua onartu eta hain denbora laburrera kreditu gehigarriaren proposamena aurkeztea, eta ondorioz, kontrako botoa emango duela.

Zorione Etxezarraga zinegotziak adierazten du legealdi honetan behin baino gehiagotan, antzeko egoeretan aldeko bozka eman dutela herriarentzako ona zelakoan, eta aurrekontuaren onarpenean bere alegazioa kontutan hartu balitz, oraingoan ere egingo lukeela, baino oraingoan abstenitu egingo dela.

Alkateak azaltzen du, EAJ-PNV eta H1 alderdien proposamena bidegorria bi zatitan egitearena izan zela, eta proposamen hori ez zela onartu, bidegorria guztiz bukatu gabe egitea suposatzen zuen arriskuagatik. Eta zenbateko guztia ez zela sartu, ez zegoelako nahiko diru bidegorriaren obra guztia finantzatzeko eta ez zekitelako

crédito adicional **de importe 626.476€**, explicando las partidas de gasto que se han incluido y la forma prevista para su financiación.

Toma la palabra la concejal Zorione para señalar que si bien el equipo de gobierno siempre critica el PGOU aprobado por el anterior equipo municipal, es por el aprovechamiento urbanístico de dicha figura por la que pueden financiar sus proyectos.

Se suscita una discusión entre el alcalde y los concejales Zorione y Bixente, sobre los planes generales aprobadas por este Ayuntamiento desde su constitución; así como la participación de los diferentes partidos políticos en su elaboración y aprobación.

A continuación, el concejal Bixente Arrizabalaga explica que en las enmiendas a los presupuestos, no se tuvo en cuenta la presentada por ellos, y que le parece de poca perspectiva aprobar el presupuesto en febrero y presentar en tan poco tiempo una propuesta de crédito adicional, por lo que va a votar en contra.

La Concejal Zorione Etxezarraga señala que durante la legislatura, en casos parecidos han votado a favor en más de una ocasión poque consideraban que era bueno para el pueblo, y que si hubieran tenido en cuenta su alegación al presupuesto les hubiera apoyado, pero que en esta ocasión se va a abstener.

El alcalde le explica que la propuesta de EAJ/PNVy H1 fue de que se hiciese el bidegorri por fases, y esa propuesta no fue aceptada por el riesgo que implicaría la ejecución sin finalizarla en su totalidad, y no se incluyó la totalidad porque no había dinero suficiente para financiar toda la obra y se desconocía la cantidad que iba a financiar la Diputación. A lo que la

Aldundiak zenbateko ekarpena egingo zuen. Eta Zorione zinegotziak udala zorpetu izana guztiz onargarria izango litzakeela erantzuten dio.

Bozkatu ondoren, EHBilduren aldeko 7 botoekin, EAJ-PNV zinegotziaren abstentzioarekin eta Hamaikabat zinegotziaren kontrako botoarekin 2015-1 kreditu gehigarria hasieraz onartzen da, kontu-hartzailearen txostenera baldintzaturik.

concejal Zorione le responde que hubiera sido del todo aceptable que el Ayuntamiento se hubiera endeudado.

Sometida a votación, con 7 votos a favor de EHBildu, la abstención de la concejal de EAJ-PNV y el voto en contra del concejal de Hamaikabat, se aprueba inicialmente el crédito adicional 2015-1 condicionada al informe del interventor.

**7. Aterpetxe natur-eskolako baldintza pleguaren onarpena**

Ogasun batzordeak aterpetxe natur-eskolako baldintza pleguak bidaltzen ditu onartuak izan daitezen. Hauek, epea murriztu eta sailkapena kenduz doitu dira.

Bozkatu ondoren, aho batez, onartzen da.

**7. Aprobación del pliego de condiciones del Albergue escuela-medio ambiental**

La comisión de Hacienda remite para su aprobación el pliego de condiciones del Albergue escuela-medio ambiental, que ha sido ajustada con la reducción del plazo y la exclusión de la clasificación.

Sometida a votación es aprobada por unanimidad.

**8. Emergentzizko pisuaren arautegia**

Alkateak, Gizarte Zerbitzuak eta Migrazio Batzordeak hasierako izaeraz onartua izan dadin bidali duen Astigarragako emergentziazko pisuaren udal araudia aurkezten du.

Bozkatu ondoren, araudia aho batez onartzen da, hasierazko izaeraz.

**8. Reglamento del piso de emergencia**

El Alcalde presenta el Reglamento Municipal del piso de emergencia social de Astigarraga, que remite la comisión de Servicios Sociales e Inmigración para su aprobación inicial.

Sometida a votación se aprueba inicialmente el reglamento, por unanimidad.

**9. Astigarragako kiroldegiko aldagelak eraberritzea. Esleipenaren proposamena**

**9. Reforma de vestuarios del Polideportivo de Astigarraga. Propuesta de adjudicación**

Kontratazio mahaiaren irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

LEHENA.- Kiroldegiko aldagelak eraberritzeko obra lehiaketa LURGOIEN, S.A. enpresari esleitzea 207.415,79 eurotan (BEZ kanpo), punturik gehien lortu duen enpresa delako lehiaketa honetan, hain zuzen 55,62 puntu.

BIGARRENA.- Esleipendunak kontratuaren esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 laneguneko epean 10.370,79 eurotako behin betiko bermea eta Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketetan egunean dagoenaren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau interesatuei jakinaraztea.

Irizpena bozkatu ondoren, aho batez, onartu egin da.

10. **Mozioa: Lau-Haizeta parkearen ingurukoa**

Eguzki taldearen mozioa aurkezten da, bertan honako hau eskatzen zaio Astigarragako Udalari:

- Lau Haizetako Parkearen plangintzaren eguneratze bat egitea. Plangintza hori Astigarragako Udalak bultzatu beharko luke eta gainontzeko udalekin (Donostia eta Errenteria) naiz instituzioekin adostasuna bilatu. Eguneratze hau legegintzaldi honetan martxan jarri beharko litzateke.
- Lau Haizetako Parkearen

Se remite para su aprobación el dictamen de la mesa de contratación, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

PRIMERA Proponer la adjudicación de la obra de reforma de vestuarios del polideportivo a la empresa LURGOIEN, S.A., por 207.415,79 euros (IVA sin incluir), ya que es la propuesta que mayor puntuación ha obtenido en el presente concurso, al obtener 55,62 puntos.

SEGUNDA.- La empresa adjudicataria deberá presentar la garantía definitiva de 10.370,79 euros y la acreditación de estar al corriente en los pagos con Hacienda y la Seguridad Social en el plazo de 10 días hábiles contados a partir del siguiente al de la notificación de la adjudicación del contrato.

TERCERA.- Notificar a los interesados este acuerdo.

Sometida a votación es aprobada por unanimidad.

10. **Moción: Parque Lau-Haizeta**

Se presenta la moción del Grupo Eguzki en la que solicita al Ayuntamiento de Astigarraga que:

- Actualizar la planificación del Parque Lau Haizeta. El Ayuntamiento de Astigarraga debería ser el responsable de impulsar dicha planificación, y debería buscar la conformidad del resto de ayuntamientos (San Sebastián y Errenteria). Dicha actualización debería ponerse en marcha en esta legislación.
- Crear una zona de "Reserva

"Erreserba akustikoko" gune bat sortzea, inguru hiritartu honen irtenbide gisa. Erreserba Akustikoa, 213/2012 Dekretuan, EAEko kutsadura akustikoari buruzkoa, agertzen den irudia da eta xedea da, batetik, hots-kutsadurari aurre hartzeko, hura murrizteko eta zaintzeko arauak ezartzea, hots-kutsaudrak pertsonen osasunean, ondasunetan eta ingurumenean eragin ditzakeen kalteak saihesteko eta urritzeko eta, bestetik, mekanismoak ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumeneko kalitate akustikoa hobetzeko.

acústica" en el Parque Lau Haizeta, como solución a este entorno urbanizado. La Reserva Acústica es una figura que aparece en el Decreto 213/2012, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma Vasca, que tiene por objeto establecer las normas para prevenir, reducir y vigilar la contaminación acústica, al objeto de evitar y reducir los daños y molestias que de ésta se pudieran derivar para la salud humana, los bienes o el medio ambiente, así como establecer los mecanismos para mejorar la calidad acústica ambiental en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Alkateak azaltzen du bozeramaileen batzarra ez dela deitu, mozioa asteartean aurkeztu zenez, denbora ez zuelako ematen.

El alcalde explica que no se ha convocado una junta de portavoces por falta de tiempo, ya que la moción se presentó el martes.

Zorione zinegotziak informazio gutxi duenez abstenitu egingo dela adierazten du.

La concejal Zorione señala que al tener poca información se va a abstener.

Bozkatu ondoren, EHBilduko aldeko 7 botoekin eta EAJ-PNV eta Hamaikabat zinegotzien abstentzioarekin, onartzen da.

Sometida a votación es aprobada con 7 votos a favor de EHBildu y 2 abstenciones de los concejales de EAJ-PNV y Hamaikabat.

## 11. Plan Berezia tramitatzeko tasaren hobaria.

Alkateak azaltzen du Hiri-Antolamendurako Plan Orokorrak 8 etxebizitzeko eraikin bat "*antolamenduz kanpo*" utzi zuela, eta horrek, besteak beste, ez diela obrak egiten uzten. Hori dela eta, Plan Berezi baten bidez malgutasun handiagoa duen "*hirigintza-plangintzaren kontrako eraikin*" bezala hartu dela.

## 11. Bonificación de la tasa por tramitar el Plan Especial.

El alcalde explica que el PGOU declaró un bloque de 8 viviendas "*fuera de ordenación*" lo cual implica, entre otros, que no puedan realizar obras. Por lo que mediante un Plan Especial se ha declarado el edificio "*disconforme con el planeamiento*", que es una figura más fléxible.

Alkateak adierazten du, Plan Berezia idaztea bizilagunek ordaindu dutela, eta orain, 4329 euroko tasa bat ordaindu beharko luketeela, egoera horretan aurkitzearen arrazoia udalaren jarduketa bat denean, beraz, tasa ez ordaintzeko salbuespen bat egitea proposatzen du.

El alcalde añade que la redacción del Plan Especial la han abonado los vecinos, y que ahora como tasa deberían de abonar 4329 euros, cuando se encuentran en dicha situación por una actuación del Ayuntamiento, por lo que proponen una exención del pago de la tasa.

Zorione zinegotziak horrelakorik gertatzen den lehendabiziko aldia den galderaren aurrean, Alkateak baietz eta datorren ordenantza fiskalean kontuan hartuko dela erantzuten dio.

La concejal Zorione pregunta si el la primera vez que se da un caso de estos, a lo que el Alcalde le contesta si, y que esta previsto tenerlo en cuenta para la próxima ordenanza fiscal.

Zorione zinegotziak idazkari-kontuhartzaileari ados dagoen galdetzen dio, eta honek erantzuten dio ordenantza fiskalaren salbuespenetan ez dagoela jasota, baina planteatzen den onarpena arrazoitua dagoela, eta antzeko beste kasuetarako ordenantzetan jasoko dela.

La concejal Zorione le pregunta al secretario-interventor si está de acuerdo con la propuesta, respondiendo que no está recogida esta exención en la ordenanza fiscal pero está motivada la aprobación que se plantea,y se recogerán en la ordenanzas para supuestos similares

Bozkatu ondoren, Plan Berezia tramitatzeagatik tasa ordaintzearen salbuespena aho batez onartzen da.

Sometida a votación se aprueba por unanimidad, la exención de la tasa por tramitar el Plan Especial.

**12. Informazio, galdera eta eskariak**

**a.-** Alkateak udal idazkari-kontuhartzaileak metaketa erregimenean zuen idazkari postuan jarraitzeari uko egitearen berri ematen du, eta uko egiteak maiatzaren 4an sartuko dela indarrean, M.C.U.S. izendatuz ordezko idazkaria.

Zorione eta Bixente zinegotziak hitza hartzen dute, idazkari-kontuhartzaileari udalaren zerbitzura egondako 26 urteengatik eskerrak emanaz.

**b.-** Zorione zinegotziak Okendotegiko bizilagunek idatzi bat aurkeztu dutela eta

**12. Información, ruegos y preguntas**

**a.-** El alcalde da cuenta de que el interventor ha renunciado a continuar desempeñando en régimen de acumulación el puesto de secretaria y que esta renuncia será efectiva desde el 4 de mayo, nombrándose secretario accidental a M.C.U.S.

Toman la palabra los concejales Zorione y Bixente para agradecer al secretario-interventor sus 26 años de servicio al Ayuntamiento.

**b.-** La concejal Zorione señala que los vecinos de Okendotegi han presentado

alkatetzak beraiekin bileraren bat eduki duten jakin nahi du.

Alkateak lehen bilera bat eduki dutela eta astelehenean edo asteartean beste bat egitea aurreikusita dagoela erantzuten dio.

Adierazten du, bere arazoaren konponbidea ez dela erraza. Hiru udalerrien mugan baitaude (Donostia, Hernani eta Astigarraga), "cementos Rezola"tik gertu, eta abiadura handiko trenaren obraren eraginpean. Hain zuzen abiadura handiko trenaren obren ABEE bidea izorratu du eta udala izan dela konpondu duena.

una solicitud y quiere saber si alcaldía ha mantenido alguna reunión con ellos.

El alcalde le contesta que han mantenido una primera reunión, y que tiene prevista hacer otra el lunes o martes.

Señala que la solución a su problema no es fácil. Se encuentran en la muga de tres municipios (Donostia, Hernani y Astigarraga), cerca de cementos Rezola, y les ha afectado las obras del tren de alta velocidad. De echo la UTE del tren de alta velocidad había roto el camino, y ha sido el Ayuntamiento el que lo ha parcheado.

**c.-** Zorione zinegotziak Ergobiako HJPn kultur etxeko obra egiteko epea ezartzea errealista ote den, oraindik ez denean zehaztu zein zerbitzuk emango diren, eta 2010. urteko pleguak ezagutzen dituzten galdetzen du.

Alkateak 2010eko pleguak zaharkituta gelditu direla adierazten dio, eta kultur teknikariarekin, eragileekin eta kultur taldeekin bilerak egin beharko direla erantzuten dio. Komentatuz, adibidez, musika eskolak ez duela lekuz aldatu nahi.

Zorione zinegotziak erantzuten dio, kultur talde eta eragileek ez dutela erabakitzeko ahalmena eduki behar, eta talde baten proposamenak ez duela proiektu oso bat baldintzatu behar. Erabakia udalarena izan behar duela.

Maite zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du eragile desberdinen iritzia garrantzitsua dela, musika eskolako kasuan, kokapena oso garrantzitsua baita zerbitzuarentzako, eta dagoen lekuan uzteak suposatuko lukeen inbertsioa ez dela

**c.-** La concejal Zorione pregunta si es realista establecer en el PAU de Ergobia Ibilbidea un plazo para ejecutar las obras de la nueva casa de cultura, cuando no se sabe todavía los servicios que va a tener; y si ya conocen los pliegos del año 2010.

El alcalde le contesta que los pliegos del 2010 se han quedado anticuados y que habrá que mantener reuniones con la técnico de cultura y los agentes y grupos culturales. Indicando que por ejemplo, la musica escola no quiere cambiar de ubicación.

La concejal Zorione le replica que los agente y grupos culturales no pueden tener poder de decisión y que la propuesta de un grupo no puede condicionar todo un proyecto. Que la decisión tiene que ser del Ayuntamiento.

Toma la palabra la concejal Maite para señalar que la opinión de los diferentes agentes es importante, y que en el caso de la musica escola la ubicación es muy importante para el servicio, y que las inversiones que supondría dejar la escuela de musica en su actual ubicación

hainbesterako.

Zorione zinegotziak gai asko erabakitzear daudela eta eztabaida bat ireki behar dela erantzuten dio, dena 2 urteko epean gauzatzeko eperik ez dagoela nabarmena izanik.

Alkateak, epe horretan egiteko ardura hartu beharko dela erantzuten dio.

no es para tanto.

La concejal Zorione le responde que hay muchas cosas que decidir y que hay que abrir un debate, siendo evidente que no da tiempo de ejecutar todo en el plazo de 2 años.

A lo que el Alcalde le responde que habrá que responsabilizarse para hacerlo en ese plazo.

**d.-**, Bidebitarte industrialdeko errepidea konpondu den inguruan Bixente Zinegotzik egindako galderaren aurrean, alkateak zuloak petatxatu direla erantzuten dio.

**d.-** El concejal Bixente pregunta si ya se ha arreglado la carretera del polígono de Bidebitarte, a lo que el alcalde le responde que se ha parcheado el mismo.

**e.-** Bixente zinegotziak Galtzaur errekak igandean ur-goraldia izan eta kalteak eragin zituela adierazten du, eta Alkateari galdetzen dio horren inguruko informaziorik ote duen.

Alkateak azaltzen du Bordatxo inguruari eragin ziola, eta euri asko egitean ura zubi gainetik pasatzen dela eta gaia aztertzear dagoela, berriro gertatu ez dadin.

Bixente zinegotziak Irigoien sagardotegiaren inguruan ura errepide gainetik pasatzen zela adierazten du. Eta alkateak Urumea ibaiko uholdeak lehentasuna dutela adierazten dio, maiztasun handiagoarekin ematen direlako.

**e.-** El concejal Bixente comenta que el domingo la regata Galtzaur sufrio una crecida y provoco desperfectos. Y pregunta haber si el alcalde tiene información al respecto.

El Alcalde explica que afectó a la zona de Bordatxo, que cuando llueve mucho el agua pasa por encima del puente y que hay que estudiar el tema para que no vuelva a ocurrir lo mismo.

El concejal Bixente señala que donde la Sidrería Irigoien el agua pasaba por encima de la carretera; a lo que el alcalde le responde que es problema puntual, y que tienen prioridad las inundaciones del rio Urumea, que se dan con más frecuencia.

f.- Alkateak Kontxa Etxeberria alaba kuttun izendatzea bere jaiotza egunaren urteurrenean, maiatzaren 19an, egitea proposatzen du, aukeran dagoen beste data bat ekainaren 15a dela adieraziz (hiltze data).

**f.-** El alcalde propone hacer el nombramiento como hija predilecta a Kontxa Etxeberria el 19 de mayo, que es el aniversario de su nacimiento, señalando que otra fecha posible sería el 15 de junio (fecha de su defunción).

Izendapena maiatzaren 19an egingo den udal osoko bilkuran egitea onartzen da, eta data hori eta ekainaren 15a bitarte zerbait antolatzea.

Se acuerda hacer el nombramiento en una sesión plenaria que se celebre el 19 de mayo, y que se organice algo entre esa fecha y el 15 de junio.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2015eko apirilaren 30ean

**Xabin Olaizola Lasa**
**Idazkari-kontuhartzailea**